

Eskabideak ordezkaritza bidez aurkezteko gida

Espainiako lurraldean bizi ez den eta ziurtagiri elektronikorik ez duen hautagai baten izenean eskabidea aurkeztuko duten zuzendariek honako jarraibide hauek izan beharko dituzte kontuan:

- **Egoitza elektronikoan erregistratzea:** Eskabidea egoitza elektronikoan erregistratzean, **«Eskatzailea»** aukera hautatu behar da; izan ere, ezin izango da izapidea egin «Ordezkaría» aukera hautatuta.
- **«Azaltzen du» eta «Eskatzen du» atalak:** Atal horietan berariaz adierazi beharko da eskabidea beste pertsona baten izenean aurkezten dela, eta ordezkatatuko pertsonaren izen-abizenak eta identifikazio-zenbakia zehaztu beharko dira.
- Honako dokumentazio hau erantsi beharko da:
 - Ordezkaritza-baimena sinatua, deialdiaren webgunean eskuragarri dagoen ereduaren arabera.
 - Identifikazioa egiaztatzen duen agiri ofiziala: pasaporte edo NANaren pareko dokumentua
 - Dagokion deialdian eskatzen den gainerako dokumentazioa.